

## **Ikasgelan gaitasun handiko ikasleak identifikatzeko estrategiak eta adierazleak etapaka**

Irakasleek hainbat estrategia eta tresna erabil ditzakete adimen handiko ikasleak antzeman eta horien ezaugarriak ezagutzeko:

- Ikasleen ezaugarri bereizgarrien **behaketa**; erregistroak, protokoloak edo adierazleak erabil daitezke zeregin hori errazteko. Hurrengo atalean adierazleak azaltzen dira.
- **Ikasleen ekoizpenen azterketa**: ahozko eta idatzizko ekoizpenak, marrazkiak, era askotako lanak, etab. Ikasgela- taldearen ekoizpenak izan daitezke, edo ikasle bakoitzak egindako lan zehatzak.
- Ikasleak egiten dituen **galdera eta iruzkinen** azterketa. Galdera sortzaileak, iruzkin bitxiak eta galdera inferentzialak, ezohikoak edo arraroak egiten dituen aztertu behar dugu. Horrela, ikasleak gaitasun handiak dituela antzeman dezakegu.
- Ikaslearen **ezagutza orokorrak eta espezifikoak**, bai eskolarekin lotutakoak eta bai interesatzen zaizkion gaiekin lotutakoak (gizarte- edo kultura-gaiak...). Bere ezagutzaren maila ere aztertu behar da.
- **Jarduera konplexuago edo berriekiko zaletasunak** ere ikasle hori desberdina dela erakuts diezaioke irakasleari.
- **Ikaskideekiko harremanaren azterketa**. Batzuetan, ikasle hauek liderrak izaten dira; gatazkentzat irtenbide originalak proposatzen dituzte, eta taldekideek ikasle azkar eta argitzat jotzen dituzte.

Lankidetzako eredutik identifikazio-, balioespen- eta jarraipen- prozesua gidatzeko, ikasle hauek **antzematea eta erabakiak hartzea xede duen PROTOKOLO** bat erantsi da eranskinetan.

Gaiari buruzko literatura zientifikoaren arabera, **Haur Hezkuntzan** hainbat fenomeno kognitibo azaltzen dira, ohi baino goizago sarritan. **Lehen Hezkuntzan**, fenomeno horiek sendotzen, biribiltzen eta hobetzen joaten dira, eta **Bigarren Hezkuntzan**, dena ongi badoa, kalitate handiko lorpenak eta ekoizpenak erdiesteko gai den profil kognitibo bat eratzen da. Beraz, jarraian azaltzen diren adierazleak eraginkortasun-helburuengatik baino ez daude etapaka sailkatuta.

## **Haur Hezkuntzako adierazleak.**

### **Eremu kognitiboarekin loturiko adierazleak**

- Bere adinerako ezohikoa den hiztegi bat du: aberatsa, zehatza, landua.
- Kausaltasun-harremanak behar baino lehen ulertzen ditu.
- Problema ebazten ditu eta intuitiboki ikasten du, bere ikaskideenetatik desberdinak diren metodoak erabiliz.
- Gaika ikasten du: zenbakiak, letrak, unibertsoa.
- Zenbakiak edo letrak behar baino lehen ezagutzen ditu.
- Kantitatearen eta kopuruaren kontzeptuak oso goiz ikasten ditu. Berezko metodoak gara ditzake kalkuluak egiteko eta problema ebazteko.
- Irakurtzen eta idazten behar baino lehen ikasten du, eta bere kabuz (induktiboki).
- Mintzamenean nabarmentzen da, eta hizketan aritzeko gaitasun handia du.
- Hizkuntza goiz garatzen du.
- Gainerako haurrek baino lehenago amaitzen ditu lanak.
- Ezagutza oso sakonak bereganatzeko gai da.
- Bere kabuz gauzak ikasteko gai da: irakurtzen, algoritmoak erabiltzen...
- Bere adin kronologikorako zailak diren kontzeptu abstraktuak ikas ditzake.
- Jolas arautuak eta eraikuntza-jolasak gustatzen zaizkio.
- Batzuetan, kosta egiten zaio ohera joatea, eta baliteke ordu gutxiago lo egin behar izatea. Alderdi hori garunaren aktibazioarekin eta loaren faseekin loturik dago.
- Oroimen ona du: ipuinak, abestiak, kontakizunak, azalpenak, datuak eta abar gogoratzen ditu.

### **Sormena eta irudimenarekin loturiko adierazleak**

- Ezohiko galderak egiten ditu, beren aniztasun, originaltasun, sakontasun edo abstrakzio-mailagatik nabarmentzen direnak.
- Originaltasuna erakusten du ideia, metodo eta adierazpen artistikoak uztartzerakoan.
- Jolasak, musika, hitzak, hitzaldiak eta abar hasten, sortzen eta egokitzen ditu, familiaren edo irakasleen eraginik gabe.
- Oso trebea da buru-hausgarriak eta puzzleak egiten.
- Sormena eta originaltasuna erakusten du, bai bere ekoizpen artistikoetan eta bai beste lan-eremu batzuetan.
- Hazten doan heinean, bere ekoizpen artistikoak ugaritzen doaz.

### **Eremu sozio-emozionalarekin loturiko adierazleak**

- "Gatazkak" konpontzeko joera du.
- Kezka agertzen du gai jakinekiko: heriotza, unibertsoa eta transzendentzia, esaterako.
- Oso sentikorra da besteen arazoekiko edo sufrimenduarekiko: pobrezia, mina, gaixotasuna, hondamendi naturalak, gerrak, indarkeria...
- Jarduera jakin batean porrot egin dezakeela uste badu, ez du jarduera hori egiterik nahi izaten.
- Umore-sen nabarmena du: txisteak kontatzen ditu, analogia dibertigarriak sortzen ditu hizkuntzarekin, etab.
- Zeregin guztiak ezin hobeto egin nahi ditu, eta hainbeste tematzen denez lan horiek hobetzen, berandu amai ditzake. Batzuetan, oso azkar amaitzen ditu ikasgelako jarduerak.
- Egonezina adierazten du, tikak ditu...

### **Motibazio eta interesekin loturiko adierazleak**

- Gai batean kontzentratzen da eta amaitu arte ez du etsitzen.
- Nekaezina dirudi, eta bizitasun handia erakusten du.
- Bere kabuz lan egitea nahiago du, eta laguntza gutxi behar du.
- Jakin-min handia du eta bere ingurunea aztertzea gustatzen zaio.

- “Ohiko” zereginak amaitu gabe utz ditzake.
- Dagoeneko ezagutzen duena berriro egitea ez zaio gustatzen.
- Gaiarekin lotutako galdera egokiak egiten ditu, eta gauzak ikasi nahi ditu.
- Ausarta eta gogoetatsua da.
- Nahiago ditu jolas intelektualak mugimendua edo gorputzarekin loturiko jarduerak baino.

## **Lehen Hezkuntzako adierazleak.**

### **Ereku kognitiboarekin loturiko adierazleak**

- Erraz ulertzen du ematen dioten informazioa, eta gogoratu egiten du.
- Arlo jakin batean jasotako ezagutzak beste arlo batzuetan erabiltzen ditu.
- Bere baliabide linguistiko eta matematikoak bere adineko gainerako haurren baino hobekiak dira.
- Hainbat motatako informazioa erlazioatzeko gai da, eta kontzeptu berriak eta ideia berritzaileak sortzen ditu.
- Interesatzen zaizkion gaiei buruz ezagutza handiak izan ditzake, nahiz eta gai horiek ikastetxean ez landu.
- Problema hainbat estrategien bidez ebazten ditu, eta gainera, eragiketarik egin gabe ebaz ditzake.
- Erraz eta azkar ikasten du, eta ez du gauzak errepikatzerik behar.
- Ikasgelako lanak azkar amaitzen ditu, eta beraz, batzuetan aspertu egiten da.
- Zeregin guztiak ezin hobeto egin nahi ditu, eta hainbeste tematzen denez lan horiek hobetzen, berandu amaitzeko ditzake.
- Bere baliabide linguistikoak bere adineko gainerako haurren baino hobekiak dira.
- Irakaslearen azalpenei aurrea hartzen die. Zenbait gauza bere kabuz ikasten ditu.
- Irakasleari zerbait argitzeko eskatzen dionean, nahikoa izaten du azalpen labur bat.
- Zeregin mekaniko eta errepikakorrak gorroto ditu.
- Haur hauengan goiz azaltzen dira metakognizio-prozesuak; hau da, goiz jabetzen dira funtzionamendu kognitiboaz eta hura kontrolatu eta erabiltzeko moduz. Beren ikaskideei kontzeptuak azaltzeko gai dira, eta nola ikasten duten konturatu dira.

### **Sormena eta irudimenarekin loturiko adierazleak**

- Originaltasuna erakusten du ideia, metodo eta adierazpen artistikoak uztartzerakoan.
- Jolasak, musika, hitzaldiak eta abar hasten, sortzen eta egokitzen ditu, gurasoen edo irakasleen eraginik gabe.
- Mota askotako galderak eta kalitate handikoak egiten ditu.
- Bere buruarekin kritikoa izan daiteke, eta baita bere ingurunearekin ere: ikaskideak, irakasleak...

### **Ereku sozio-emozionalarekin loturiko adierazleak**

- Iritzi oso independenteak izan ohi ditu.
- Berak proposatzen dituen gaiak lantzerantz bultzatzen ditu beste ikaskide batzuk.
- Bihurria edo geldiezina izan daiteke, eta baita lotsagabea ere.
- Umore-sen nabarmena du: gauza dibertigarri eta barregarriak esaten ditu, ironia erabiltzen du.
- Gizarte-arazoekiko kezka agertzen du. Justizia, egia, zintotasuna eta abar defendatzen ditu.
- Batzuetan ez ditu arauak onartzen, horien arrazoiak aurrez azaltzen ez bazaizkio.
- Gai transzendentalek kezkatzen dute: beste mundua, aspaldiko zibilizazioak, heriotza, etab.
- Perfekzionismoa.

### **Motibazio eta interesekin loturiko adierazleak**

- Zeregin batean kontzentratzen da eta amaitu arte ez du etsitzen.
- Bere lanak ezin hobeto egin nahi ditu.
- Bere kabuz lan egitea nahiago du, eta laguntza gutxi behar du.
- Interesatzen zaizkion arloetan lan bikainak egiteko gai da, edo berarentzat erronka bat diren zereginetan gogo biziz parte hartzen du.
- Jakin-min handia erakusten du: zentzua aurkitu nahi die gauzei, guztiaren gainetik haien zergatia jakin nahi du.
- Bere erritmora lan egiten du; gustuko duen zereginen batean kontzentratzen bada, azkar eta oso ongi egiten du. Interesatzen zaizkion arloetan denbora luzez lan egiteko gai da.
- Zeregin desberdinak eta konplexuagoak eskatzen ditu.

## **Bigarren Hezkuntzako adierazleak.**

### **Eremu kognitiboarekin loturiko adierazleak**

- Gai jakinen batean emaitza bikainak lortzen ditu.
- Arazoen aurrean ideia, definizio, kontzeptu eta irtenbide ugari sortzen eta proposatzen ditu.
- Bere emaitzei dagokienez, kalifikazio eta ebaluazio batzuetatik bestera alde handiak egon daitezke.
- Hizkuntza egokia eta zehatza erabiltzen du, eta hiztegi zabala eta aberatsa du.
- Erantzukizunarekiko jarrera egokia du.
- Eskola-errendimendu handia du.
- Ezagutzak erraz bereganatzen eta erlazionatzen ditu.

### **Sormena eta irudimenarekin loturiko adierazleak**

- Lehen Hezkuntzako ezaugarri berberak ditu: jolasak, musika, hitzaldiak eta abar hasten, sortzen eta egokitzen ditu, gurasoen edo irakasleen eraginik gabe.
- Material arruntak erabiltzen ditu eguneroko arazoentzat irtenbide sortzaileak bilatzeko.
- Problema konplexuak planteatzen ditu, eta galderak eginez ezagutzak handitzen saiatzen da.
- Originaltasuna erakusten du ideia, metodo eta adierazpen artistikoak uztartzerakoan.
- Oso kritikoa izan daiteke egoera jakin batzuen aurrean (bidegabeak, desegokiak, inkontsekuentek), eta baita irakasle batzuekiko ere.
- Bere sormena ekoizpenera zuzenduta dago. Irakasleari problema konplexuak planteatzen dizkio, bere ezagutzak handitzeko asmoz.

### **Eremu sozial eta emozionalarekin loturiko adierazleak**

- Batzuetan, jarrera hezigaitza erakuts dezake ezarritako agintearekiko, eta arauak eta gizarte-ohiturak zalantzan jartzen ditu.
- Jarrera kritikoa du bere buruarekiko eta besteekiko.
- Kezka eta sentikortasun berezia erakusten du gizarte-arazoekiko, arazo moral edo etikoekiko, etab.
- Irakasleei aurre egin diezaieke.
- Bizitzaren alde ludikoa bilatzen du.
- Umore-sen zorrotza eta landua du.
- Kaskarkeria ezin du jasan, eta lanak ezin hobeto egin nahi ditu.
- Lagun minak egin nahi ditu, haiekin identifikatu eta bat egin ahal izateko.
- Perfekzionismoa.

### **Motibazio eta interesekin loturiko adierazleak**

- Bere kabuz lan egitea nahiago du, eta laguntza gutxi behar du.
- Eskolako curriculumean ez dauden gaiak interesatzen zaizkio.
- Interes bizia erakusten du ikerketa intelektualeko arlo bat edo gehiagorekiko, eta emaitza ezin hobek ateratzen ditu gai jakin batzuetan.
- Ikastetxeko talde-jardueratan parte hartzen du (egunkaria, antzerki-taldea, irratia, etab.), eta baita hezkuntza-elkarteko beste jarduera batzuetan ere.
- Gorabehera handiak izan ditzake eskola-errendimenduan eta kalifikazioetan, hainbat faktoreren eraginez (gaia, irakaslearen estilo kognitiboa, ikaslearen gogo-aldarte, etab.).
- Hainbat jardueratan nabarmentzen da: matematika-olinpiadetan, arlo zientifikoetan (fisika, kimika, biologia, geologia...), xake-lehiaketetan, musikan...
- Bere interes eta ezagutzak partekatzen dituzten pertsonekin egon nahi du.
- Interesatzen zaizkion gaietan asko ahalegintzen da.